



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Euskararen  
erakunde  
publikoa

Office public de  
la langue basque

## **Prentsa oharra**

**Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren  
arteko lankidetzaren kari, 2026an euskararen alorrean  
diharduten eragile pribatuak sustatzeko hartu erabakiak**

### **2026ko lankidetzarako funtsa**

(Hitzarmenez lotu eragileak eta hizkuntza jarduera proiektu deialdia)

Baiona - 2026ko ekainaren 30a

## Baiona, ekainaren 30a

Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Gobernuaren arteko hizkuntza politikaren alorreko mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, Ipar Euskal Herriko eragile pribatuei laguntzeko lankidetzaren funts komuna osatzen da urtero 2007tik honat.

2026an, fondoak 2.470.000 €-koa da, hots 2025ean baino 540.000 € gehiago. 2017az geroztik izan den lehen emendaketa da, bi partaideek euskararen alde hartu engaiamendua erakusten duena. 2026ko beraz, EEPren ekarpena 1.970.000 €-koa da (+440.000 €), eta Eusko Jaurlaritzarena berriz, 500.000 €-koa (+100.000 €).

Sustatutako alor guzietan eta aitzineko urteetan abiatu lanaren ildoari jarraikiz, EEPk eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza politikaren eragile nagusiei ematen dieten sostengua indartu nahi izan dute.

Horrela, bi partaideek aurten ere lehentasunezko sostengu ekonomiko eta tekniko adierazi nahi diete eskaintza iraunkorra egituratu duten eta euskararen transmisioan, ikaskuntzan, erabileran eta hedapenean modu eraginkor eta iraunkorrean ari diren hizkuntza politikako eragile identifikatuei.

Laguntza hori, hizkuntza jardueraren proiektu deialdiaren bidez ere bideratzen da, euskararen erabilera eta sustapenerako dinamikak sortu eta indartzeko funtsezkoa den tresna baita deialdia, izan proiektu berriak edo jarraipen logika batean diren jardueren laguntzeko.

### I. Lankidetzaren esparrua

2007tik formalizatutako lehenagoko hitzarmenen jarraipenean, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikaren alorreko mugaz gaindiko lankidetzaren esparrua 2025ean berriro dute 2025-2029 epealdirako, joan den apirilaren 4an Baionan izenpetuz hitzarmen berria.

Esparru-hitzarmen hori, urtero eranskin bidez deklinatzen da, urteko lana eta Iparraldeko eragile pribatuei zuzentzen zaien diruztapen era zehaztuz, bi instituzioek elkarrekin elikatzen eta osatzen duten lankidetzarako funtsaren bidez. Aurten ere beraz, EEPk eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eragile pribatuek eramandako euskararen erabilpena eta transmisioa sustatzen dituzten proiektuak elkarrekin diruz laguntzea erabaki dute.

### II. Lankidetzarako funtsa

2026ko, Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak eragile pribatuentzat osatu **lankidetzarako funtsa 2.470.000 €-koa da** (+540.000 € 2025 urtearekin konparatuz), bi partaideen ekarpenez:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.970.000 €**,
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: **500.000 €**.

Lankidetzarako funts hori bi dirutza multzotan banatua da:

- **2.300.000 €**-ko diru multzoa (+470.000 € 2025 urtearekin konparatuz): Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko 13 eragile jakin, urteko edo urte anitzeko **hitzarmenetan** oinarriturik diruztatzen dira.
- **170.000 €**-ko diru multzoa (+33.500 € 2025 urtearekin konparatuz): Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribaturi zuzenduko zaio **hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren** bidez. Orohar, beste eragile pribatuak diruztatzeko.

### III. Dirulaguntza eskaeren trataera

Euskararen Erakunde Publikoko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako zerbitzuek, eragile pribatuak (izan elkarte edo enpresa) helarazi eskaera guziak banan-bana aztertu dituzte, aitzinetik finkatu ziren eta eragileei azaldu zitzaizkien **4 irizpide nagusien** arabera:

- Proiektuaren kalitatea (egingarritasun teknikoa eta finantzarioa, helburu eta modalitateen koherentzia Proiektu estrategikoaren printzipio eta lehentasunekiko, proiektuaren eredugarritasuna)
- Proiektuaren eragina euskararen transmisioan edota erabileraren garapen iraunkorrean
- Aurreikusitako proiektuaren ebaluazioa, proposatutako helburu eta neurketa-adierazleen arabera (gauzatze-adierazleak, emaitza-adierazleak, eragin-adierazleak)
- Proiektu eramailearen ibilbidea, haren jardueraren ezagutza

### IV. Esleipen erabakiak

Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, burutu azterketaren ondotik, jarraian zehaztutako erabakiak hartu dituzte:

#### **IV.1. Beren jarduera linguistikoa sustatzeko xedez, hitzarmenez lotutako eragile jakinak diruz laguntzea (2.300.000 €)**

→ **496.000 €** (+97.000 € 2025 urtearekin konparatuz) emanen dira **euskarazko irakaskuntzan** lanean diharduten honako eragileak sustatzeko:

- **Seaska federazioa** (Ikastolen federazioak 38 ikastetxe biltzen ditu: lehen mailan 33 eskola, 2. mailan 4 kolegio eta lizeo polibalente bat, orotara 4.300 ikasle hurbil eskolatzen ditu Seaskak ama-eskolatik lizeoraino): **405.000 €** esleituak federazioa sostengatzeko euskararen erabilpena eta transmisio laguntza-ekintzetan (besteak beste eskolatik kanpo euskararen erabilpena sustatzeko helburua duten jarduerak, komunikazioa eta sentsibilizazioa, irakasleen hasierako eta etengabeko formakuntza, laguntza pedagogikoa, hezitzaileen eta irakasleen kontratazioa eta kudeaketa, kontabilitate eta giza-baliabideen kudeaketarako laguntza ikastolentzat...).
- Irakaskuntza elebiduneko buraso elkarteak, sare publiko zein pribatuan euskarazko irakaskuntza sustatzeko:



- **Ikas-Bi** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarte): **40.000 €** Ikas-bik burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen lanak laguntzeko, 2015an finkatu esparru-hitzarmenarekin koherentzian, bertan Ikas Bi eta EEPren arteko partaidetza modalitateak zehaztuak baitira, Ikas Bi elkarteak irakaskuntza publikoan irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak bideratzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek eraman politika publikoaren osagarri gisa: irekitze eta murgiltze proiektuei laguntza, euskararen erabilera eta irakaskuntza elebidunaren alde burasoak laguntzea, familiei informazioa eta sentsibilizazioa, eskola jarraipena etab.
- **Biga Bai** (sare publikoko irakaskuntza elebiduneko buraso elkarte): **23.000 €** Biga Bai elkarteak sare publikoko eskola eta ikastetxeetan burutzen dituen irakaskuntza elebidunaren sustapen eta jarraipen lanak laguntzeko, EEPn bilduak diren botere publikoek daramaten politikaren osagarri gisa: irakaskuntza elebidunaren sustapena (burasoei informazioa eta komunikazioa...), irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapena eta egituratze kualitatibo lanetan parte hartzea (irekitze eta murgiltze proiektuak, eskola-jarraipena), irakaskuntza elebidunaren defentsan burasoen ordezkatzeta eta euskararen erabilpena sustatzen duten proiektuak muntatzeko talde pedagogikoen akuilatzea.
- **Euskal Haziak** (sare pribatu girstinoko irakaskuntza elebiduneko buraso eta irakasle elkarte): **28.000 €** irakaskuntza pribatu katolikoan irakaskuntza elebidunaren sustapenerako eragileak eramaten duen proiektua laguntzeko, Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzarekin (IKEZ/ DDEC) lotua: irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garapenaren eta egituratze kualitatibo lanetan EEP eta IKEZekin batean parte hartzea, irakaskuntza elebidunaren sustapenerako ekintzak (ate irekien antolaketa, komunikazioa), euskararen erabilera sustatzen duten ekintzak (antzerki astea ikastetxeen artean, literatura lehiaketa, ateraldiak eta gertakariak...).

→ **750.000 €** (+230.000 € 2025 urtearekin konparatuz) **helduen irakaskuntzarako:**

- **AEK** (helduei zuzendutako euskararen irakaskuntzarako formakuntza zentroyen federazioa): **750.000 €** AEKk daramatzan helduei zuzendutako norbanakoaren formakuntza alorrean diren irakaskuntza jarduerak diruz hobeki laguntzeko: lurralde guzian hedatuak diren 14 gau eskolei laguntza eta aholkularitza tekniko eta pedagogikoa (formatzaileen kontratazioa eta kudeaketa, formatzaileen formakuntza, didaktika, ikasleen jarraipena...), ikastaldi trinkoen antolaketa, sentsibilizazio kanpainak.

→ **612.000 €** (+82.500 € 2025 urtearekin konparatuz) emanen dira **euskarazko hedabideak sustatzeko:**

- **Euskarazko irratia sarea:** 2026-2028 epealdirako, Euskal Irratiak, Irulegiko Irratia, Entzun Ikus, Xiberoko Botza, Antxeta Irratia eta EEPren artean adostu urte anitzeko helburu eta baliabide hitzarmenaren arabera, 2026 urterako, euskarazko irrati sareari 345.000 €-ko dirulaguntza esleitu zaio, egituren artean



honela banaturik:

- **Euskal Irratiak:** 260.000 € Ipar Euskal Herri lurralde-mailako irrati-programazioentzat ekoiztuak eta hedatuak diren euskarazko berri-sailentzat eta programentzat, bai eta sare-buru funtzioak segurtatzeko ere, estrategia digitala garatzeko eta tokiko irratiei laguntza administratiboa emateko.
  - **Tokiko irratiaik:** Irulegiko Irratia 32.500 €, Entzun Ikus 17.500 €, Xiberoko Botza 17.500 € eta Antxeta Irratia 17.500 €, bakoitzaren tokiko irrati edukien ekoizpena laguntzeko eta hedatzeko, baita Ipar Euskal Herri lurralde mailako programazioaren edukien ekoizpenerako, Euskal Irratiak-ekin elkarlanean.
  - **Aldudarrak Bideo:** Aldudarrak Bideo eta EEPren artean adostu 2025-2027 epealdirako helburu eta baliabide hitzarmenaren arabera, 2026 urterako, Aldudarrak Bideo kooperatibari **120.000 €**-ko dirulaguntza esleitu zaio, publiko guzientzako programen (erreportaiak, magazinak, emankizunak eta bestelako grabaketak) ekoizteko eta zabaltzeko (Eskualdeko Helburu eta Baliabide Hitzarmenaren bidez sorturiko programen osagarri gisa), hedapen-sareak plantan emateko edo esperimazioak jarraitzeko, banaketa-sareetan Kanalduderen ikusgarritasuna hobetzeko helburuarekin (telebista konektatuarentzat aplikazioak... ) eta azkenik, katearen komunikazio-estrategia egituratzen segitzeko.
  - **Herria: 55.000 €** harpidetza bitartez edo kioskoetan banatua den euskarazko astekaria ekoizteko eta argitaratzeko.
  - **Euskal Komunikabideak: 42.000 €** Iparraldeko Hitza, astekari berezitua ekoizteko eta argitaratzeko. Astekaria Berria egunkariaren harpidedunei banatzen zaie, kioskoan zuzenean edota harpidetza berezi baten bidez.
  - **Iparla Baigura Komunikazioa (kazeta.eus): 50.000 €** kazeta.eus webgunerako euskarazko edukiak sortzeko.
- **310.000 €** (+66.000 € 2025 urtearekin konparatuz) emanen dira azken urte hauetan garapen handia izan duten **aisialdi alorreko** jarduerak sustatzeko:
- **Bertsularien Lagunak** (bertsolaritzaren irakaskuntza eta sustapenerako elkarteak): **70.000 €** lurralde guzian bertso eskolek eramaten duten bertsolaritzaren irakaskuntza sustengatzeko (eskolaz kanpoko jarduerak, bertso saioak eta txapelketa izan ezik), orotara 315 ikasle inguruk parte hartzen dute 34 taldetan banaturik.
  - **Uda Leku** (euskarazko aisialdi eta egonaldi zentroak): Uda Leku eta EEPren artean adostu 2025-2027 epealdirako helburu eta baliabide hitzarmenaren arabera, 2026 urterako, **240.000 €** dirulaguntza esleitu zaio, eragileak antolatu euskarazko aisialdi jarduerak sustengatzeko (4 bilguneetan edo egonaldietan), bai eta eragilea sendotzen laguntzeko ere (bilgune berrien irekitzeko urraspideen jarraipena eta finantzaketa arrunten optimizatzeko lanak, besteak beste).

→ **35.000 € bizitza sozialaren alorrean:**

- **Plazara:** 35.000 € euskararen inguruan bitartekaritza-lana eta proiektu berritzaileak garatzeko.

**IV.2. Hizkuntza jarduera proiektu deialdia (170.000 €)**

Hizkuntza jarduera proiektu deialdiari dagokionez, ezarri den diru multzoa 170.000 €-koa da. Orotara, 31 eragileek 48 proiektu aurkeztu dituzte (2025ean 29 eragilek aurkeztu 45 proiektu izan ziren).

Dirulaguntzen esleipena honela egituratzen da (prentsa ohar honen bukaeran den lehen eranskinak proiektu bakoitzari esleitu dirulaguntzak zehazten ditu):

- **Lehen haurtzaroko harreraren arloan:**

- Euskarazko harrera egiten duten lehen haurtzaroko eragileei, euskarazko tailerrak antolatzeko kanpoko parte hartzaileei dei eginez:
  - Azkaingo **Kilima haurtzain etxea**: « 0 eta 3 urteko haurrei zuzendutako animazioak proposatu »
  - Angeluko **Xoko Ttipi haurtzain etxea**: « Irakurketa eta yoga tailerrak » proiektuarentzat

- **Helduen euskalduntzearen arloan:**

- Helduentzako euskarazko ikasgaiak eskaintzen dituzten eragileak:
  - **Angeluko Ikasleak**, helduen formakuntzan Angelun eskaintzen dituen jarduerentzat
  - **Jakinola**, euskara ikasten ari direnentzat hizkuntzaren praktika bultzatzen duten aktibitateak antolatzeko: « Mintzapraktika » proiektua.

- **Bizitza sozialaren arloan:**

- Euskararen erabilpenaren garapena eta sentsibilizazioa sustatzen dituen jarduerak egituratu dituzten eragileak:
  - **Euskal Moneta**: bere kideak (enpresa eta merkatariak) afixatze elebiduna plantan ezartzen laguntzeko jarduerarentzat
  - **Société d’Astronomie Populaire de la Côte Basque**: bere planetario ibiltaria eta interaktiboa euskaratzeko
  - **Udako Euskal Unibertsitatea**: Baionan Udako ikastaroen antolaketarako

- **Aisialdia eta kirol arloetan:**

- Beren formakuntza jardueretan Euskarazko eskaintza egituratu duten eragileak:
  - **Oreka** zirko eskola, euskarazko zirko tailerrak antolatzeko
  - **Gaia kirol elkarteak**, elkarteak antolatuko dituen atelier eta animazioetan euskararen erabilera sustatzeko euskarazko euskarri pedagogikoak sortzeko

- **Hedabideen arloan:**

- Beren frantsesezko programazioan euskarazko eskaintza integratu duten hedabideetako eragileak: **Errobi Promotions** (radiokultura.eus), **TVPI** eta **Iparla Baigura Komunikazioa** (Mediabask proiektuentzat)
- Gazteek gazteentzat eduki mediatikoak ekoizteko eta sare sozialetan edo Interneten bidez zabaltzeko 2022an sortu hedabidea: **Gaztekom** («Bada»)

- **Argitalpen alorrean** (laguntzak 3 lerro ezberdinetan esleitzea aurreikusten duena: liburuen argitalpena, promozio eta merkaturatze lanak, animazio pedagogikoak):

- 15 argitalpen-proiektu (argitaratze proiektuentzat, hizkuntzaren kalitateari dagokionez, Euskaltzaindiak karia horretara osatu lan-batzordeak eman iritzi onaren baldintzapean):
  - o Euskarazko 15 argitalpen-proiektu: dirulaguntzak, hautagarriak diren gastuen % 40ean
- Liburuen merkaturatze eta promozio lanetarako proiektu 1: 2.000 €-tara mugatua den laguntza (Haria)
- 3 proiektu animazio pedagogikoaren lerroan: 2.000 €-tara mugatua den laguntza (la Grande Illusion, Haria eta Libreplume)



**Lehen eranskina:** 2026. urteko hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren kariatara, proiektu bakoitzari emandako laguntzaren xehetasunak

Les projets qui bénéficieront d'une aide financière Diru-laguntza jasoko duten egitasmoak		
Opérateur Eragilea	Titre du projet Proiektuaren izenburua	Subvention Diru-laguntza
MAM Kilima	Organisation d'activités d'éveil à proposer aux jeunes enfants de 0 à 3 ans ainsi qu'à leurs familles 0 eta 3 urteko haurrei eta familiei zuzendutako animazioak proposatu	1 400 €
MAM Xoko ttipi	Atelier bébé lecteur et atelier yoga Nini irakurle tailerrak eta yoga tailerrak	1 036 €
Angeluko Ikasleak	Enseignement de la langue basque aux adultes Helduei bideratutako Euskararen ikaskuntza	5 000 €
Jakinola	Séances de conversations Mintzapraktika	2 000 €
Euskal Moneta	Renforcer et développer l'usage et la présence de l'euskara du réseau professionnel de l'Eusko (commerces, entreprises et associations) Euskararen erabilera eta presentzia indartzea eta garatzea eremu sozioekonomikoan (saltegi, enpresa eta elkarteak).	16 000 €
Société d'Astronomie Populaire de la Côte Basque	Un planétarium itinérant et interactif en basque Elkartearen funtzionamendurako laguntza eskaera	1 450 €
Udako Euskal Unibertsitatea	Offre académique annuelle d'UEU UEUren urtean zeharreko eskaintza akademikoa	4 000 €
GAIA (GAIAM Cidems)	L'euskara en jeu : développer l'usage de l'euskara dans les activités ludiques et sportives de GAIA Euskara jolasean: GAIAREN jolas eta kirol jardueretan euskararen erabilera garatzea	5 000 €
Oreka	Le cirque vecteur de l'euskara Zirkua euskaraz biziartzea	13 500 €
Gazte Kom - Bada	Bada (média pour et par les jeunes) Bada (gazteek gazteentzat sortu hedabidea)	25 000 €
Errobi Promotions	Radiokultura.eus	28 000 €
Iparla Baigura Komunikazioa	Mise en valeur de l'euskara dans Mediabask Euskararen balorizazioa Mediabasken	5 000 €
TVPI	Au coeur de l'Euskara - Valorisation de la langue basque auprès des téléspectateurs de TVPI Euskararen muinean - Euskararen balioa agerian ematea TVPIko ikusleengan	19 600 €

Les projets qui bénéficieront d'une aide financière (volet édition) Diru-laguntza jasoko duten egitasmoak (argitalpen atala)		
Opérateur Eragilea	Titre du projet (selon formulation par l'opérateur) Proiektuaren izenburua (eragileak izendatuta)	Subvention Diru-laguntza
Elkar	Edition de l'ouvrage "Arranoaren luma" "Arranoaren luma" liburuaren argitaratzea	4 000 €
	Edition de l'ouvrage "Auzolanaren lurretan, EHZ: 30 urte zuzenean" "Auzolanaren lurretan, EHZ: 30 urte zuzenean" liburuaren argitaratzea	3 516 €
	Edition de l'ouvrage "Hegal Egiten" "Hegal Egiten" liburuaren argitaratzea	4 000 €



Les projets qui bénéficieront d'une aide financière (volet édition) Diru-laguntza jasoko duten egitasmoak (argitalpen atala)		
Opérateur Eragilea	Titre du projet (selon formulation par l'opérateur) Proiektuaren izenburua (eragileak izendatuta)	Subvention Diru-laguntza
<b>Haran ubel</b>	Edition de l'ouvrage "Gazteluan" "Gazteluan" liburuaren argitaratzea	<b>1 957 €</b>
<b>Haria</b>	Edition de l'ouvrage "Azken txikia" "Azken txikia" liburuaren argitaratzea	<b>2 412 €</b>
	Edition de l'ouvrage "Beltxu" "Beltxu" liburuaren argitaratzea	<b>2 514 €</b>
	Edition de l'ouvrage "Irudika" "Irudika" liburuaren argitaratzea	<b>2 530 €</b>
	Edition de l'ouvrage "Mimosa bat loretan" "Mimosa bat loretan" liburuaren argitaratzea	<b>2 508 €</b>
	Travaux de commercialisation : Promotion des ouvrages en langue basque édités par Haria liburuak Merkaturatze lanak: Haria argitaletxeak argitaratutako liburuen promozioa	<b>2 000 €</b>
	Mise en place d'animations pédagogiques autour des albums de création originale HARIA lors de leur sortie et en présence des autrices Animazio pedagogikoak: HARIAren sorkuntza albumen argitalpenen inguruko animazio pedagogikoen antolaketa, egileen presentziarekin.	<b>2 000 €</b>
<b>Hatsa</b>	Edition de l'ouvrage "Hatsaren poesia 2026" "Hatsaren poesia 2026" liburuaren argitaratzea	<b>1 987 €</b>
<b>La grande illusion</b>	Animation pédagogique : Nola erraiten düzü? Animazio pedagogikoak: Nola erraiten düzü ?	<b>2 000 €</b>
<b>Libreplume</b>	Animations pédagogiques : Zoom sur l'autrice-Illustratrice Irrimara Animazioa pedagogikoak: Irrimara argitan	<b>2 000 €</b>
<b>Maiatz</b>	Edition de l'ouvrage "Hamar laminak" "Hamar laminak" liburuaren argitaratzea	<b>300 €</b>
	Edition de l'ouvrage "Bihotzaren izkin batetik" "Bihotzaren izkin batetik" liburuaren argitaratzea	<b>300 €</b>
	Edition de l'ouvrage "Deserroa haurtzaro" "Deserroa haurtzaro" liburuaren argitaratzea	<b>300 €</b>
	Edition de l'ouvrage "Eh Petrel!" "Eh Petrel!" liburuaren argitaratzea	<b>300 €</b>
<b>Sü Azia</b>	Edition de l'ouvrage "Euskal aditza enbor beretik" "Euskal aditza enbor beretik" liburuaren argitaratzea	<b>2 454 €</b>
<b>ZTK</b>	Edition de l'ouvrage "Demetrio" "Demetrio" liburuaren argitaratzea	<b>2 742 €</b>
	Edition de l'ouvrage "Ezgulaperen filosomia" "Ezgulaperen filosomia" liburuaren argitaratzea	<b>3 194 €</b>
<b>TOTAL OROTARA</b>		<b>170 000 €</b>